# **Alkatetzaren Dekretua** Decreto de Alcaldía

Portugaleteko alkateak 2025eko abustuaren 25(e)an Dekretu hau eman du:
La alcaldesa de Portugalete, el 25 de agosto de 2025 emitió el siguiente Decreto:

Ikusita proposatu egin dela Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorreko hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia onestea, behin Portugaleteko Udalbatzak onetsita 2024ko uztailaren 24an Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP, 2024-2027) eta 2025eko martxoren 27an, berriz, hasierako onespena emanda dirulaguntza horien gaineko arautegiari, 30 eguneko epealdia igaro da zeinen bitartean ez baita erreklamaziorik egin. Horren ondorioz, hasieran onetsitako arautegiaren testua behin betiko onartutzat eman da. Beraz, hauxe **xedatzen dut**:
Vista la propuesta de convocatoria para 2025 de las ayudas para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete, que dimana de la aprobación plenaria, de 24 de julio de 2024, del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP, 2024-2027) y de la aprobación inicial de la normativa reguladora de la concesión de tales ayudas, aprobada en Pleno el 27 de marzo de 2025, una vez transcurridos los 30 días de plazo, tras los cuales, sin haberse producido reclamaciones, el texto inicialmente aprobado se ha elevado a definitivo, **vengo en disponer**:

**Lehenik.-** Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorreko hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia onartzea, agiri honekin batera datorren eranskinarekin bat etorriz.
**Primero.-** Aprobar la convocatoria de 2025 de las ayudas para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete, de acuerdo con el anexo adjunto.

**Bigarrenik.-** Dagokion gastua onartzea, A fasean (gastua baimentzea), honako xehetasun hauen arabera:
**Segundo.-** Aprobar el gasto correspondiente, en su fase A (autorización del gasto), de acuerdo con el siguiente detalle:

| **Aurrekontu partida**<br>Aplicación presupuestaria | **Gastuaren deskribapena**<br>Descripción del gasto | **Zenbatekoa**<br>Importe |
|---|---|---|
| **01.3350.47101** | **Dirulaguntzak merkatariei**<br>Ayudas a comerciantes | **4.000** |

**Hirugarrenik.-** Esta convocatoria se publicará en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS), en el Boletín Oficial de Bizkaia (BOB) y el tablón de anuncios del Ayuntamiento.
**Tercero.-** Deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS), Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da.

**Laugarrenik.-** Erabaki honen berri ematea Euskara Zerbitzuari eta Hirigintza, Merkataritza eta Kontu-hartzailetza sailei.
**Sexto.-** Dar traslado del presente acuerdo al Servicio de Euskera y a los departamentos de Urbanismo, Comercio e Intervención.

**Hala dekretatu eta izenpetu du Portugaleteko alkateak 2025eko abustuaren 25(e)an eta nik, behin-behineko idazkari nagusia naizen honek, horren fede eman dut.**

Lo que decreta y firma la alcaldesa de Portugalete, el 25 de agosto de 2025, de todo lo cual yo, el secretario general acctal., doy fe.

| | |
|---|---|
| Alkatea La alcaldesa | Behin-behineko idazkari nagusia El secretario general acctal. |
| [redacted] | [redacted] |
| Mª José Blanco Gavieiro | Javier Sánchez Fernández |

# Convocatoria de 2025 de la concesión de subvenciones para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete

**Artículo 1.- Objeto**

El objeto de la presente convocatoria es regular la concesión de subvenciones, mediante el procedimiento de concesión directa, a establecimientos de comercio, hostelería y servicios y asociaciones sin ánimo de lucro de Portugalete, dirigidas a la euskaldunización del paisaje lingüístico y del entorno digital, que se concretan en cuatro conceptos subvencionables diferentes:

- A.- Subvenciones para la instalación de rótulos en euskera. A estos efectos se entiende por rótulo tanto el colocado en el exterior del local, el impreso en toldos, escaparates y en vehículos comerciales, como el incluido en los directorios ubicados en el interior de los portales, con indicación del piso y el número de puerta de la actividad. En el caso de textos impresos sobre escaparates, toldos, vehículos o similares, se subvencionará solamente el importe de la impresión y no el del soporte completo.
- B.- Subvenciones para cartelería fija y otros elementos del interior de los locales con información para la clientela.
- C.- Subvenciones para la adopción del dominio .eus.
- D.- Subvenciones para la euskaldunización de páginas web.

Todo ello en cumplimiento del primer eje, referido a la Gobernanza, del Plan de Acción para la Promoción del Euskera 2024-2027 del Ayuntamiento de Portugalete, aprobado por el Pleno en sesión ordinaria celebrada el 24 de julio de 2024, y de acuerdo con lo establecido por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en la legislación de desarrollo.

**Artículo 2.- Bases reguladoras**

Las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas fueron aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento de Portugalete en sesión ordinaria celebrada el 27 de marzo de 2025 y publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia número 70 el 10 de abril del mismo año.

**Artículo 3.- Cuantía de la subvención**

Teniendo en cuenta que el IVA solamente será subvencionado cuando la entidad beneficiaria no lo pueda deducir, estas serán las cuantías de las subvenciones, a partir de las cantidades que figuren en la factura:

- <u>Concepto A.- Subvenciones para la instalación de rótulos en euskera</u>. Se subvencionará en un 100 % el importe del gasto de cada rótulo o cartel cuya leyenda se redacte exclusivamente en euskera, sin superar los 800 euros. El gasto de cada rótulo o cartel cuya leyenda se redacte en los dos idiomas oficiales, en cambio, será subvencionado en un 60 %, sin superar los 500 euros.
- <u>Concepto B.- Subvenciones para cartelería fija y otros elementos del interior de los locales con información para la clientela</u>. Se subvencionará en un 75 % el importe del gasto para la euskaldunización de la cartelería fija y de otros elementos del interior del local que proporcionen información a la clientela relacionada con la actividad comercial u hostelera, hasta un máximo de 600 euros.

- Concepto C.- Subvenciones para la adopción del dominio .eus. Se subvencionará el 100 % del costo, sin superar los 30 euros.
- Concepto D.- Subvenciones para la euskaldunización de páginas web. Se subvencionará en un 75 % el gasto de las webs tanto redactadas exclusivamente en euskera como el de las webs con una página principal en castellano que ofrezcan la opción de cambio de lengua al euskera, con un máximo de 800 euros.

**Artículo 4.- Beneficiarios y requisitos**

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas los establecimientos de comercio, hostelería y servicios ubicados en Portugalete, así como las asociaciones sin ánimo de lucro del municipio.

4.1.- Para ser beneficiarios, los establecimientos de comercio, hostelería y servicios deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Tener la consideración de pequeña empresa. A los efectos de estas ayudas, se considerará pequeña empresa aquella que ocupa a menos de 50 trabajadores y cuyo volumen de negocios anual o cuyo balance general no supere los 10 millones de euros, según lo previsto en el artículo 2.1.del Reglamento de la UE 651/214 de 17 de junio para la consideración de pequeña empresa.

b) Estar ubicados en Portugalete.

c) Estar dados de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en el momento de la presentación de la solicitud, o bien tramitar dicha alta en el plazo máximo de dos meses desde la fecha de fin de plazo de presentación de solicitudes.

d) Haber realizado cualquiera de las siguientes acciones en el año de la correspondiente convocatoria o en la anterior: instalar rótulos en euskera, poner en euskera carteles fijos u otros elementos informativos para la clientela en el establecimiento, adoptar el dominio .eus o euskaldunizar sus páginas web.

e) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social en la forma que se determina en los artículos 18 y 19 del Reglamento de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

f) Hallarse al corriente en el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que se determinan en el artículo 21 del Reglamento de la Ley 38/2003 General de Subvenciones

g) No hallarse sancionados penal ni administrativamente con la pérdida de posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursos en prohibición legal alguna que los inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo o por factores de discriminación múltiple en los términos que se determinan en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista Contra las Mujeres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Asimismo, deberán cumplir con los requisitos para obtener la condición de beneficiario de subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

4.2.- Para ser beneficiarias, las asociaciones sin ánimo de lucro deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Tener su sede social en Portugalete.

b) Estar debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones.
c) Haber realizado cualquiera de las siguientes acciones en el año de la correspondiente convocatoria o en la anterior: instalar rótulos en euskera, adoptar el dominio .eus o euskaldunizar sus páginas web.
d) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social en la forma que se determina en los artículos 18 y 19 del Reglamento de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
e) Hallarse al corriente en el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que se determinan en el artículo 21 del Reglamento de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
f) No hallarse sancionados penal ni administrativamente con la pérdida de posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursos en prohibición legal alguna que los inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo o por factores de discriminación múltiple en los términos que se determinan en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista Contra las Mujeres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
g) No hallarse incursa, de acuerdo con el artículo 13.3 de la Ley General de Subvenciones, en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación. Tampoco podrán obtener la condición de beneficiarias las asociaciones respecto de las que se hubiese suspendido el procedimiento administrativo de inscripción por encontrarse indicios racionales de ilicitud penal, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 30.4 de la Ley Orgánica 1/2002, en tanto no recaiga resolución judicial firme en cuya virtud pueda practicarse la inscripción en el correspondiente registro.

Asimismo, deberán cumplir con los requisitos para obtener la condición de beneficiario de subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**Artículo 5.- Obligaciones de los solicitantes**

5.1.- Las entidades beneficiarias estas subvenciones están sujetas al cumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
b) Justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión de la subvención.
c) Destinar íntegramente el importe de la subvención a la ejecución del objeto de la subvención.
d) Comunicar la solicitud de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de otras instituciones u organismos.
e) Comunicar la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de otras instituciones u organismos.
f) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Portugalete, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero

que puedan realizar los órganos de control competentes, y aportar cuanta información les sea requerida en el ejercicio de dichas actuaciones.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.
h) Colaborar con el Ayuntamiento de Portugalete en aquellos supuestos que le sea requerido relacionados con el objeto de estas subvenciones.
i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
j) Cumplir con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2003, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista Contra las Mujeres y Hombres y en la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de Mujeres y Hombres y asumir las oblifgaciones impuestas a las entidades que reciben ayudas de la Administración.

5.2.- Respecto a la acción subvencionada, las entidades beneficiarias de estas subvenciones están sujetas al cumplimiento de las siguientes obligaciones:

- A y B.- Instalación de rótulos en euskera y cartelería fija:
  a) Los textos deberán estar correctamente escritos y para ello la persona interesada podrá solicitar la asistencia técnica del Servicio Municipal de Euskera.
  b) La actividad del establecimiento (*bar, panadería, moda...*) tiene que aparecer obligatoriamente en el rótulo; por ejemplo: "Peio arrandegia", "Anatxu taberna". No se subvencionarán los rótulos que solo muestren los nombres propios, sean topónimos o apellidos.
- C.- Adopción del dominio .eus. El contenido de la página web que adopte el dominio .eus deberá encontrarse redactado en euskera o en euskera y en otro idioma.
- D.- Euskaldunización de páginas web. El contenido de la página web deberá encontrarse redactado en euskera o en euskera y en otro u otros idiomas. En ese caso solo se subvencionará el coste del texto redactado en euskera. Asimismo, los textos en euskera deberán ser gramaticalmente correctos, de acuerdo con el criterio técnico del Servicio Municipal de Euskera.

**Artículo 6.- Documentación a presentar**

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado (anexo 1).
b) Fotocopia de la tarjeta de identificación fiscal de la entidad solicitante.
c) Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.
d) Copia de las facturas acreditativas de la inversión realizada en las que se recojan los conceptos subvencionables objeto de la solicitud. Solo se admitirán las facturas en las que los activos subvencionables estén claramente identificados. Cuando sea el caso, las facturas deberán mostrar claramente diferenciados el importe del soporte y el de la impresión del rótulo.
e) Copias de los justificantes de pago de las facturas presentadas. La justificación de los pagos superiores a 200 euros se acreditará a través de transferencia bancaria, certificación bancaria o extracto de pago. En estos documentos deberán quedar claramente identificados el receptor y el emisor del pago.

f) Fotografía que pruebe la colocación del rótulo (una fotografía por rótulo) o, en su defecto, proyecto de colocación.
g) Url de la página web y nombre del dominio.
h) Declaración responsable de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social , en virtud de lo establecido en el artículo 13.2.e de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el artículo 24.4 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de subvenciones (anexo 2).
i) Documento "Alta o modificación de datos" debidamente cumplimentado (anexo 3).

Si las solicitudes no reunen los datos exigidos o no vienen acompañadas de la documentación reseñada, se requerirá a las personas interesadas para que en un plazo de diez días subsanen los defectos observados, con apercibimiento de que, de no hacerlo así, se entenderá por desistida a la persona interesada en su solicitud.

**Artículo 7.- Plazos y lugares de presentación de solicitudes**

7.1.- Las solicitudes se presentarán, mediante escrito en el modelo formalizado al efecto y junto con la documentación exigida, en el Registro General del Ayuntamiento de Portugalete , en la Oficina Municipal de Atención Ciudadana de la plaza San Roque (en los horarios de apertura al público de cada uno de los registros) o telemáticamente.
7.2.- Se presentará una única solicitud de ayuda por establecimiento para el conjunto de las inversiones realizadas.
7.3.- El plazo de solicitud de ayudas será de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia del anuncio de la convocatoria de la subvención.
7.4.- La presentación podrá también realizarse por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
7.5.- No se admitirán solicitudes presentadas fuera de plazo.

**Artículo 8.- Instrucción**

8.1.- La propuesta de concesión de las subvenciones se formulará al organo colegiado a través del órgano instructor. La composición del órgano colegiado queda determinada en virtud de lo establecido en el artículo 22.1 de la Ley General de Subvenciones 38/2003.
8.2.- El órgano colegiado referido estará constituido por:

- Una técnica o técnico de normalización lingüística, en funciones de presidencia.
- Una técnica o técnico de normalización lingüística, en funciones de secretaría.
- Una técnica o técnico de las áreas de Cultura, Educación o Participación Social e Innovación Ciudadana como vocal.

Se aplicará el principio de representación equilibrada, de manera que en el órgano colegiado haya una presencia equilibrada de mujeres y hombres, según el artículo 3.10 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
8.3.- La propuesta de concesión se formulará al órgano concedente por un órgano colegiado, a través del órgano instructor. El órgano instructor será el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Portugalete.
8.4.- De acuerdo con el artículo 24 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 27 de noviembre, el órgano competente para la instrucción realizará de oficio cuantas

actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución, así como todas las actividades relacionadas en el apartado 3 del citado artículo.
8.5.- El órgano colegiado, previo examen de las bases reguladoras de la convocatoria, procederá a la evaluación de las solicitudes.
8.6.- Una vez evaluadas las solicitudes, el órgano colegiado emitirá un informe en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada, tal y como se recoge en el artículo 22 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 27 de noviembre.
8.7.- El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe del órgano colegiado, formulará la propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, que deberá notificarse a las personas interesadas en la forma que se establezca en la convocatoria, y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones.
8.8.- Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados. En este caso, la propuesta de resolución formulada tendrá el carácter de definitiva.
8.9.- Examinadas las alegaciones aducidas en su caso por las personas interesadas, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución definitiva y la elevará al órgano concedente. Dicha propuesta recogerá la o las entidades solicitantes para las que se propone la concesión e indicará la cuantía de la subvención. Asimismo, hará constar, en su caso, las solicitudes desestimadas.

**Artículo 9.- Resolución y notificación**
9.1.- Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, y de acuerdo con lo previsto en el artículo 88 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y, en su caso, en la correspondiente norma o convocatoria, el órgano competente resolverá el procedimiento.
9.2.- El órgano competente para resolver será la Alcaldía-Presidencia.
9.3.- Las solicitudes se resolverán por riguroso orden de registro y a medida que se completen los expedientes, hasta agotar el crédito presupuestario disponible en la partida económica destinada al efecto.
9.4.- La resolución se motivará y, además de contener el solicitante o solicitantes a quienes se concede la subvención, hará constar, en su caso, de manera expresa, la desestimación del resto de las solicitudes, tal y como se recoge en los artículos 25.2 y 25.3 de la Ley de Subvenciones.
9.5.- El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis meses.
9.6.- Contra tal resolución municipal, que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo y, con carácter potestativo y previo, recurso de reposición.
9.7.- Sin perjuicio de la notificación individual a los solicitantes de la resolución de concesión de ayuda, se publicará en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento de Portugalete la relación de las entidades beneficiarias, así como el importe de subvención concedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 55.i) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

**Artículo 10.- Publicidad de las subvenciones**

10.1.- Finalizado el plazo de presentación y una vez resueltas todas las solicitudes se publicará conforme al artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y al artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

10.2.- En el caso de recibir una ayuda por el concepto D, subvenciones para la euskaldunización de páginas web, los beneficiarios deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación del objeto de la subvención, tal y como se recoge en el artículo 18.4 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**Artículo 11.- Dotación presupuestaria y recursos económicos**

El crédito destinado a satisfacer los gastos de esta convocatoria asciende a cuatro mil euros (4.000 €) con cargo a la partida 01.3350.47101 del presupuesto vigente.

Asimismo, y según el artículo 58 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se podrá disponer excepcionalmente de una cantidad adicional, siempre condicionada a la declaración de disponibilidad de crédito y, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda.

**Artículo 12.- Confidencialidad de la información**

12.1.- El Ayuntamiento de Portugalete asume el compromiso de que la información sobre las personas beneficiarias de estas ayudas no será utilizada para ningún fin diferente al del propio ámbito del programa.

12.2.- El tratamiento de los datos personales se llevará a cabo según lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Personales y garantía de los derechos digitales, así como en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

# Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorrean hizkuntza paisaia eta ingurumena euskalduntzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia

## 1. artikulua.- Xedea

Deialdi honen xedea da Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen establezimenduei eta irabazi-asmorik gabeko elkarteei hizkuntza-paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzea. Dirulaguntza horiek lau kontzeptu dituzte:

- A kontzeptua.- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak. Horretarako, errotulutzat hartzen da bai lokalaren kanpoaldean jarritakoa, olanetan, erakusleihoetan eta ibilgailu komertzialetan inprimatutakoa, bai atarien barruan kokatutako direktorioetakoa, jardueraren solairua eta atearen zenbakia adierazita. Erakusleiho, olana, ibilgailu edo antzekoetan inprimatutako testuen kasuan, inprimaketaren zenbatekoa baino ez da diruz lagunduko, eta ez euskarri osoarena.
- B kontzeptua.- Bezeroentzako informazioa dakarten kartel finkoetarako eta lokalen barruko beste elementu batzuetarako dirulaguntzak.
- C kontzeptua.- .eus domeinua hartzeko dirulaguntzak.
- D kontzeptua.- Webguneak euskalduntzeko dirulaguntzak.

Hori guztia, Portugaleteko Udalaren Euskara Sustatzeko 2024-2027 Ekintza Planaren gobernantzari buruzko lehenengo ardatza betetzeko, zeina Udalbatzak onartu baitzuen 2024ko uztailaren 24ko ohiko bilkuran, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusian eta lege hori garatzeko legerian ezarritakoarekin bat etorriz.

## 2. artikulua.- Oinarri-arauak

Dirulaguntzak emateko oinarri-arauak Portugaleteko Udalbatzak onetsi zituen 2025eko martxoaren 27ko bilkuran eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 70. zenbakian argitaratu ziren 2025eko apirilaren 10ean.

## 3. artikulua.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Kontuan hartuta BEZa erakunde onuradunak kendu ezin duenean bakarrik diruz lagunduko dela, hauexek izango lirateke dirulaguntzen zenbatekoak, fakturan agertzen diren zenbatekoetatik abiatuta:

- A kontzeptua.- Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak. Euskara hutsean idatzitako errotulu edo kartel bakoitzaren gastuaren % 100 lagunduko da diruz, 800 euroko kopurua gainditu gabe. Bi hizkuntza ofizialetan idatzitako errotulu edo kartel bakoitzaren gastua, aldiz, % 60an lagunduko da diruz, 500 euroko kopurua gainditu gabe.
- B kontzeptua.- Bezeroentzako informazioa dakarten kartel finkoetarako eta lokalen barruko beste elementu batzuetarako dirulaguntzak. Kartel finkoak eta lokalaren barruko beste elementu batzuk euskalduntzeko gastuaren % 75 lagunduko da diruz, baldin eta bezeroei merkataritza- edo ostalaritza-jarduerarekin lotutako informazioa ematen badiete. Gehienez 600 euro emango dira.
- C kontzeptua.- .eus domeinua hartzeko dirulaguntzak. Kostuaren % 100 lagunduko da diruz, 30 euroko kopurua gainditu gabe.
- D kontzeptua.- Webguneak euskalduntzeko dirulaguntzak. Diruz lagunduko da, % 75ean diruz lagundu ere, euskara hutsean idatzitako webguneen gastua, bai eta gaztelaniazko orri nagusi bat duten eta euskarara aldatzeko aukera eskaintzen duten webguneen gastua ere, gehienez 800 euroko muga dagoelarik.

**4. artikulua.- Onuradunak eta eskakizunak**

Dirulaguntza hauen onuradunak izan daitezke Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen establezimenduak eta udalerriko irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

4.1.- Onuradunak izateko, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen establezimenduek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresa txikia izatea. Deialdi honen ondorioetarako, enpresa txikia izango da 50 langile baino gutxiago dituena eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez duena, ekainaren 17ko 651/214 EB Erregelamenduaren 2.1 artikuluan enpresa txikitzat hartzeko aurreikusitakoaren arabera.

b) Portugaleten kokaturik egotea.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eskaera aurkezten den unean, edo alta hori gehienez ere bi hilabeteko epean izapidetzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

d) Dagokion deialdiaren urtean edo aurrekoan ekintza hauetakoren bat egin izana: euskarazko errotuluak instalatzea, establezimenduan kartel finkoak edo bezeroentzako beste informazio-elementu batzuk euskaraz jartzea, .eus domeinua hartzea edo webguneak euskalduntzea.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusiaren Erregelamenduaren 18. eta 19. artikuluetan zehazten den moduan.

f) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusiaren Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

g) Ez edukitzea ez zigor penalik, ez eta administratiborik ere, zeinen ondorioz dirulaguntza publikoak jasotzeko posibilitatea galdu baitute; halaber, dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik jaso ez izana, horren barne daudelarik, sexu-diskriminazioagatik edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik gertatutako debekuak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Halaber, dirulaguntzen onuradun izateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

4.2.- Onuradunak izateko, irabazi asmorik gabeko elkarteek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresa txikia izatea. Deialdi honen ondorioetarako, enpresa txikia izango da 50 langile baino gutxiago dituena eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez duena, ekainaren 17ko 651/214 EB Erregelamenduaren 2.1 artikuluan enpresa txikitzat hartzeko aurreikusitakoaren arabera.

b) Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribiturik egotea.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eskaera aurkezten den unean, edo alta hori gehienez ere bi hilabeteko epean izapidetzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

d) Dagokion deialdiaren urtean edo aurrekoan ekintza hauetakoren bat egin izana: euskarazko errotuluak instalatzea, establezimenduan kartel finkoak edo bezeroentzako beste informazio-elementu batzuk euskaraz jartzea, .eus domeinua hartzea edo webguneak euskalduntzea.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusiaren Erregelamenduaren 18. eta 19. artikuluetan zehazten den moduan.

f) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusiaren Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

g) Ez edukitzea ez zigor penalik, ez eta administratiborik ere, zeinen ondorioz dirulaguntza publikoak jasotzeko posibilitatea galdu baitute; halaber, dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik jaso ez izana, horren barne daudelarik, sexu-diskriminazioagatik edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik gertatutako debekuak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera .

h) Ez egotea Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. ataletan aurreikusitako debekuen eraginpean, Dirulaguntzei buruzko Lege Nagusiko 13.3 artikuluaren arabera. Era berean, ezin izango dira onuradun izan, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak egoteagatik, inskripzio-prozedura administratiboa eten zaien elkarteak, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman eta dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen duen ebazpena eman arte.

Halaber, dirulaguntzen onuradun izateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

**5. artikulua.- Eskatzaileen betebeharrak**

5.1.- Dirulaguntza hauen onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 14. artikuluan ezarritako beharrak bete behar dituzte:

a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntza ematea oinarritzen duen jokamoldea izatea.
b) Justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete direla, jarduera egin egin dela eta dirulaguntzaren helburua bete egin dela.
c) Dirulaguntzaren zenbateko osoa aurkeztutako jarduera edo programa garatzeko erabiltzea.
d) Helburu bererako beste erakunde edo organismo batzuei dirulaguntzarik eskatuz gero, horren berri ematea.
e) Helburu bererako beste erakunde edo organismo batzuetatik dirulaguntzarik jasoz gero, horren berri ematea.
f) Men egitea Portugaleteko Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduerei, bai eta kontrol-organo eskudunek egin beharreko finantza-egiaztapeneko eta kontroleko beste edozein jarduketari ere, eta jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia ematea.
g) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke.
h) Portugaleteko Udalarekin lankidetzan aritzea, dirulaguntza hauen xedearekin zerikusia duten kasuetan.
i) Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 37. artikuluan jasotako kasuetan.
j) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen eta Gizonen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea, bai eta Administrazioaren laguntzak jasotzen dituzten erakundeei ezarritako betebeharrak bere gain hartzea ere.

5.2.- Diruz lagundutako jarduerari dagokionez, dirulaguntza hauen erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

- A eta B.- Euskarazko errotuluak eta kartel finkoak instalatzea:
  a) Testuak zuzen idatzita egongo dira. Horretarako, interesdunak aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango dio Udalaren Euskara Zerbitzuari.
  b) Establezimenduaren jarduera (*taberna, okindegia, jantzidenda...*) nahitaez agertu behar da errotuluan; esaterako: "Peio arrandegia", "Anatxu taberna". Ez da diruz lagunduko izen propioa baino agertzen ez duen errotulurik, toponimoak zein abizenak izanik ere.
- C.- .eus domeinua hartzea. .eus domeinua hartzen duen webgunearen edukia euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batez idatzita egon beharko da.
- D.- Webguneak euskalduntzea. Webgunearen edukiak euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batean edo batzuetan idatzita egon behar du. Dena delarik, euskaraz idatzitako testuaren kostua bakarrik lagunduko da diruz. Era berean, euskarazko testuak gramatikalki zuzenak izan beharko dira, Euskararen Udal Zerbitzuaren irizpide teknikoaren arabera.

**6. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak**

j) Eskaera-orria, behar bezala beterik (1. eranskina).
k) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
l) Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
m) Egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturen kopia, eskaeraren xede diren kontzeptu diruz lagungarriak jasotzen dituena. Diruz lagundu daitezkeen aktiboak argi identifikatuta dituzten fakturak baino ez dira onartuko. Hala badagokio, fakturek argi eta garbi bereizita erakutsi beharko dituzte euskarriaren zenbatekoa eta errotuluaren inprimaketarena.
n) Aurkeztutako fakturen ordainagirien kopiak. Berrehun eurotik gorako ordainketen justifikazioa banku-transferentzia, banku-ziurtagiri edo ordainketa-laburpen bidez egiaztatuko da. Dokumentu horietan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren hartzailea eta igorlea.
o) Errotulua jarri izana frogatzen duen argazkia (argazki bat errotulu bakoitzeko) edo, halakorik ezean, jartzeko proiektua.
p) Webgunearen URL eta domeinuaren izena.
q) Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (2. eranskina), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 13.2.e artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.
r) "Datuen alta edo aldaketa" izeneko agiria (3. eranskina), behar bezala beterik.

Eskabideek eskatutako datuak agertzen ez badituzte edo adierazitako dokumentazioa aurkezten ez badute, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko, eta ohartaraziko zaie, hala egin ezean, eskabidean atzera egin dutela ulertuko dela.

**7. artikulua.- Eskaerak noiz eta non egin**

7.1.- Eskabideak idatziz aurkeztuko dira, formalizatutako ereduan eta eskatutako dokumentazioarekin batera, Portugaleteko Udaleko Erregistro Nagusian, San Roke plazako herritarrentzako arretarako udal bulegoan (erregistro bakoitza jendearentzat zabalik dagoen orduetan) edo telematikoki.

7.2.- Establezimenduek eskaera bana besterik ez dute egingo eta eskaera horretan egindako inbertsio guztiak agertuko dituzte.

7.3.- Eskaerak egiteko epea hilabetekoa izango da, dirulaguntzen deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

7.4.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan ere egin ahal izango dira eskaerak.
7.5.- Ez da onartuko epez kanpo aurkezten den eskaerarik.

**8. artikulua.- Instrukzioa**

8.1.- Instrukzio-organoak dirulaguntzak emateko proposamena egingo dio kide anitzeko organoari. Kide anitzeko organoaren osaera Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusiko 22.1 artikuluak zehazten du.

8.2.- Hauexek izango dira kide anitzeko organo horren kideak:

- Hizkuntza-normalizazioko teknikari bat presidentetza zereginetan.
- Hizkuntza-normalizazioko teknikari bat idazkaritza zereginetan.
- Kultura, Hezkuntza edo Gizarte Parte Hartze eta Herritarren Berrikuntza arloetako teknikari bat kide gisa.

Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko da, kide anitzeko organoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluaren arabera.
8.3.- Kide anitzeko organoak, instrukzio-organoaren bidez, dirulaguntza emateko proposamena egingo dio organo emaileari. Instrukzio-organoa Portugaleteko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da.

8.4.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Nagusiko 24. artikuluaren arabera, instrukzio-organoak ofizioz egingo ditu, alde batetik, ebazpen-proposamena egiteko kontuan hartu behar diren datuak eta, bestetik, artikulu horren 3. apartatuan zerrendatutako jarduera guztiak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

8.5.- Kide anitzeko organoak, deialdia arautzen duten oinarri-arauak aztertu ondoren, eskabideak ebaluatuko ditu.

8.6.- Eskabideak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak ebaluazioaren emaitza zehazteko txostena egingo du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Nagusiko 22. artikuluan jasotzen den bezala.

8.7.- Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta interesdunei jakinarazi beharko die deialdi honetan ezarritako moduan. Hamar eguneko epea ere emango die alegazioak egiteko.

8.8.- Interesdunek azaldutako egitate, alegazio edo frogak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, egindako ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.
8.9.- Interesdunek egindako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du eta organo emaileari helaraziko dio. Proposamen horrek jasoko du zer erakunde eskatzaileri ematea proposatzen den, eta dirulaguntzaren zenbatekoa ere bai. Era berean, hala badagokio, ezetsitako eskabideak jasoko ditu.

**9. artikulua.- Ebazpena eta jakinarazpena**

9.1.- Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, organo eskudunak prozedura ebatziko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluan eta, hala badagokio, dagokion arauan edo deialdian aurreikusitakoaren arabera.

9.2.- Ebazteko organo eskuduna Alkatetza-Udalburutza izango da.

9.3.- Eskabideak erregistro-ordena hertsian ebatziko dira, espedienteak osatu ahala, horretarako bideratutako diru-partidako aurrekontu-kreditua agortu arte.

9.4.- Ebazpena arrazoitu egingo da, eta, dirulaguntza zein eskatzaileri ematen zaion jasotzeaz gain, berariaz adieraziko du, hala badagokio, gainerako eskabideak ezetsi egin direla, Dirulaguntzei buruzko Legearen 25.2 eta 25.3 artikuluetan jasotzen den bezala.
9.5.- Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da.
9.6.- Udal ebazpen hori behin betikoa izanik administrazio-bidean, haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, eta, nahi izanez gero, aldez aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ere bai.
9.7.- Dirulaguntza emateko ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinarazteaz gain, erakunde onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa argitaratuko dira Portugaleteko Udalaren Gardentasun Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.i artikuluan xedatutakoaren arabera.

**10. artikulua.- Dirulaguntzen publizitatea**
10.1.- Eskaerak egiteko epea amaitu eta eskabide guztiak ebatzi ondoren, ebazpena Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 18. artikuluaren eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluaren arabera argitaratuko da.
10.2.- D kontzeptuagatiko dirulaguntza jasoz gero (webguneakk euskalduntzeko dirulaguntzak), onuradunek publizitate egokia eman beharko diote dirulaguntzaren xedearen finantzaketaren izaera publikoari, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiko 18.4 artikuluak jaso bezala.

**11. artikulua.- Aurrekontua eta diru baliabideak**
Deialdi honen gastuak ordaintzeko kreditua lau mila eurokoa da (4.000 €), indarrean dagoen aurrekontuko 01.3350.47101 partidaren kargura.
Era berean, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 58. artikuluaren arabera, zenbateko gehigarri bat eduki ahal izango da, salbuespenez, betiere kreditu-erabilgarritasunaren deklarazioaren baldintzapean eta, hala badagokio, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren.

**12. artikulua.- Informazioaren konfidentzialtasuna**
12.1.- Portugaleteko Udalak konpromisoa hartu du dirulaguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremuaz bestelako helburuetarako ez erabiltzeko.
12.2.- Datu pertsonalen tratamendua arau hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

1. eranskina Anexo 1

# Eskabidea Solicitud

## Portugaleteko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alorrean hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskalduntzeko dirulaguntzarena

## de subvenciones para la euskaldunización del paisaje lingüístico y el entorno digital en el sector del comercio, hostelería y servicios de Portugalete

| Eskatzailearen izen-abizenak Solicitante: nombre y apellidos | NAN DNI |
|---|---|
| | |

| Enpresaren izena Nombre de la empresa | IFZ CIF |
|---|---|
| | |

| Merkataritza izena Nombre comercial | Jarduera Actividad |
|---|---|
| | |

| Helbidea Dirección |
|---|
| |

| @ | Tel |
|---|---|
| | |

**Dirulaguntzaren kontzeptua.** Marka itzazu eskatu nahi dituzun guztiak.
**Concepto por el que solicita subvención.** Marque tantos cuantos correspondan.

| | | | |
|---|---|---|---|
| □ A<br>□ B | Euskarazko errotuluak edota kartel finkoak instalatzea<br>Instalación de rótulos o cartelería fija en euskera | → | Testua Texto |
| □ C | .eus domeinua hartzea<br>Adopción del dominio .eus | → | Url |
| □ D | Webguneak euskarazea<br>Euskaldunización de páginas web | | |

Portugalete, ..................................

Eskatzailearen sinadura Firma de la persona solicitante

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

2. eranskina Anexo 2

# ARDURAZKO AITORPENA DECLARACIÓN RESPONSABLE

## Aitorpen-egilearen datuak Datos de la persona declarante

Izen-abizenak
Nombre y apellidos ..........................................................................................................

NAN DNI ...................................................................

AITORTZEN DUT

egunean ditudala zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2.e artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

DECLARO

hallarme al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social, en virtud de lo establecido en el artículo 13.2.e de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el artículo 24.4 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

Portugalete, ....................................................

Izenpea Firma

Portugaleteko Udala
Ayuntamiento de Portugalete

Euskara zerbitzua

3. eranskina Anexo 3

# DATUEN ALTA EDO ALDAKETA

## *ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS*

PERTSONA EDO ENTITATE INTERESATUAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
DATOS IDENTIFICATIVOS DE LA PERSONA O ENTIDAD INTERESADA

NAN edo IFK DNI o CIF ........................................................

Abizenak eta izena edo sozietaren izena Apellidos y nombre o razón social
..........................................................................................................................................................

DATOS BANCARIOS BANKUARENDATUAK

Bankua Banco

Sukurtsala Sucursal

KD DC

Kontu korrontea Cuenta corriente

Kontuaren jabea Titular de la cuenta
..........................................................................................................................................................

Solo para cuentas corrientes en el extranjero A rellenar por el banco
Atzerriko diru-kontuetarako soilik Bankuak bete behar
IBAN

Interesatuaren adostasuna
Conformidad de la persona interesada

Bankuaren adostasuna
Conformidad del banco

Portugalete, ..............................................

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak "Terceros Contabilidad" izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Futxategi horren ardura Portugaleteko udalari dagokio eta udal kontularitza eta diru-sarreren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu Portugaleteko udaletxeko Erregistro Nagusian: Solar plaza z. g. 48920 Portugalete.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero "Terceros Contabilidad", del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento: Plaza del Solar s/n, 48920 Portugalete.

PORTUGALETEKO UDAL DIRUZAINTZA/ TESORERÍA DEL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE